

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
12/2010	R1/2013	2013/01/25	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. SZ. Eragiketen bolumena. Gatazkaren onartezintasuna. Arbitraje Batzordearen eskumena

Ebazpena: R 1/2013

Espedientea: 12/2010

Gasteizen, 2013ko urtarrilaren 25ean

Euskadiko Autonomia Erkidegoarekin izenpetutako Ekonomi Ituneko Arbitraje Batzordeak, Carlos Palao Taboada presidentek eta Isaac Merino Jara eta Francisco Javier Muguruza Arrese batzordekideek osatuak, honako

ERABAKIA

hartu du Estatuko Zerga Administrazioko Agentziak Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurka aurkeztutako gatazkari buruz, hau da, 1 ENTITATEA (IFZ: (LETRA) NNNNNNNN) sozietateak, 2005 eta 2006ko ekitaldietan burututako eragiketen bolumena, eta Sozietateen gaineko Zergari eta Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagokien eragiketa bolumenaren proportzioa zehaztea dela-eta. Gatazka hori 12/2010 espediente zenbakiaz izapidetzen ari da Arbitraje Batzorde honetan.

I. AURREKARIAK

1. Gatazka hau Estatuko Zerga Administrazioko Agentziak (EZAA) planteatu zuen, bere zuzendari nagusiak 2010eko apirilaren 6an egin eta Arbitraje Batzorde honetan hilaren 8an erregistratu zen idatzi baten bidez. Idatzi hori eta erantsitako dokumentuak ikusita, honako aurrekariak ondorioztatzen dira:

1. EZAAREN Euskal Autonomia Erkidegoko Ordezkaritza Bereziko Ikuskaritzako Eskualde Bulegoak informe bat egin zuen 2009ko martxoaren 30ean. Informe horretan adierazten denez, helbidea Gipuzkoan duen eta higiezinak sustatzen eta saltzen diharduen 1 ENTITATEAK (aurrerantzean, "entitatea"), bere izenak adierazten duen lekuan bakar-bakarrik –1 UDALERRIKO (Malaga) 1 ALKATE-

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
12/2010	R1/2013	2013/01/25	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. SZ. Eragiketen bolumena. Gatazkaren onartezintasuna. Arbitraje Batzordearen eskumena

AUZOk auzoan– garatzen du bere jarduera, higiezinaren sustapena; beraz, eragiketa bolumen oso-oso lurralde erkidean gauzatzen du.

Aipatutako informearen arabera, entitateak 2003an hasi zituen bere jarduerak eta, bai ekitaldi horretan eta bai 2004ko ekitaldian, bere eragiketen bolumena 6 milioi euro baino askoz gutxiago izan zen. Gipuzkoako Foru Ogasunak eman dizkigun 2005eko eta 2006ko ekitaldietako BEZaren eta Sozietateen gaineko Zergaren aitorpenetan, taula honetan adierazitako zifrak ageri dira aipatutako zergei dagokienez:

	SZ	BEZ
2005	ss.sss.sss,ss €	s.sss.sss,ss €
2006	s.sss.sss,ss €	ss.sss.sss,ss €

Beraz, aitorpen horietatik ondorioztatzen denez, 2005eko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergari eta 2006ko BEZari dagokien eragiketa-bolumena 6 milioi eurotik gorakoa izan zen, eta eragiketen % 100 lurralde erkidean burutu zen.

Informe horretan proposatu zen Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzea, 1 ENTITATEAK 2005 eta 2006ko ekitaldietan burututako eragiketen bolumena egiazta dezan, BEZari eta Sozietateen gaineko Zergari dagokienez, 6 milioi euroko kopurua gainditu zuen ala ez jakiteko; eta bidezko gertatuz gero, eragiketa bolumen horretan lurralde bakoitzari zer proportzio dagokion finkatzeko; eta 2006 eta 2007ko ekitaldietan, EZAAk zein ekitaldi eta zerga ikuskatzeko eskumena duen erabakitzeke.

2. 2009ko apirilaren 17an, eskaera horren berri eman zitzaion Gipuzkoako Foru Ogasunari. Hori ikusita, Gipuzkoako Foru Aldundiko Zergen Ikuskaritza Nagusiak bidezko informea egin zuen 2009ko azaroaren 20an, eta hau, abenduaren 10ean jaso zuen EZAAk. Informe horretan, 1 ENTITATEAri eta

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
12/2010	R1/2013	2013/01/25	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. SZ. Eragiketen bolumena. Gatazkaren onartezintasuna. Arbitraje Batzordearen eskumena

honek garatzen duen jarduerari buruzko datuez gain, gatazka aurkezteko idatzian aipatzen diren zirkunstantziak azaldu ziren, honela laburturik:

- “Sozietateak higiezinaren sustapen bakarra egin du, 2005ean bukatu zena. Guztira 80 etxebizitzako sustapena izan zen, eta horietatik:
 - o 19 etxebizitza, 2005eko salmenta gisa eskrituratu eta kontabilizatu ziren.
 - o 56 etxebizitza, 2006an eskrituratu ziren, baina 2005eko salmenta gisa jaso ziren kontabilitatean.
 - o 5 etxebizitza, 2006an eskrituratu ziren.
- Zergapekoak higiezinak sustatzeko enpresen kontabilitate plan sektorialari jarraituz kontabilizatu du etxebizitzen salmenta. 2005eko ekitaldiari dagokion Sozietateen gaineko Zergan aitortutako negozioen zifra kontabilitateko emaitza horretan sartu da, baina BEZari dagokiona ez.
- Zerga bakoitzean aitortutako negozio-zifra sozietatearen eragiketa-bolumenarekin identifikatu du Foru Administrazioak”.

3. EZAk Euskal Autonomia Erkidegoan duen ordezkari bereziak, 2010eko otsailaren 9an, “1 ENTITATEAK (IFZ: (LETRA) NNNNNNNN), BEZari eta Sozietateen gaineko Zergari dagokienez, 2005 eta 2006ko urte edo ekitaldietan burututako eragiketa-bolumenaren proportzioa zehazteko lanak direla-eta”, “inhibizio errekerimendua” egin zion Gipuzkoako Foru Aldundiari, 2008ko abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuaren indarrez onartutako Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearen Araudiak (EIABA) 13. artikuluan ezarritakoari jarraituz. Errekerimendu horretan, aurrekarien atalean, gorago aipatutako datuak azaldu zizkion; bereziki, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ikuskaritza Zerbitzuak 2009ko azaroaren 20an egindako informarearen edukia.

Errekerimenduaren Zuzenbidezko Oinarrietan, hasteko, EZAren iritziz “eragiketa bolumena” kontzeptuaren interpretazio egokia ageri da, Sozietateen gaineko Zergaren eta BEZaren ondorioetarako, Ekonomia Itunaren 14. Bi eta

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
12/2010	R1/2013	2013/01/25	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. SZ. Eragiketen bolumena. Gatazkaren onartezintasuna. Arbitraje Batzordearen eskumena

27.Bi artikuluetan hurrenez hurren definitutakoa. Errekerimenduan adierazten denez, bigarrenik, “ez da zuzena Gipuzkoako Foru Aldundiak egin duen identifikazioa, hau da, “eragiketa bolumena” “negozio zifrarekin” (kontabilitateko emaitzatik lortutako zifrarekin) identifikatzea”. Laburbilduz, honakoa dio: “Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen diogu 1 ENTITATEAREN 2005 eta 2006ko Sozietateen gaineko Zergari eta BEZari buruz egindako informea zuzen dezan, Itunaren 14. artikuluan xedatutakoari jarraituz, zergapekoaren eragiketa bolumena kontraprestazio guztien kopuruaren arabera zehaztuz, betiere ondasun emateetan eta zerbitzuen prestazioetan subjektu pasiboak ekitaldi/urte bakoitzean lortutako BEZa eta baliokidetasun errekarua kenduta, halakorik izanez gero. Era berean, Itunaren 15. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz zerga-ordainketan administrazio bakoitzari dagokion proportzioa zehatz dezan eskatzen diogu”.

4. 2010eko martxoaren 9an, Gipuzkoako Foru Aldundiak inhibizio errekerimendua jaso zuenetik jada hilabete joana zenez, eta errekerimendu horri erantzun ez zionez, EZAk ulertu zuen GFAk bere “irizpidea” isilbidez berretsi egin zuela, EIABAREN 13.1 artikuluan ezarritakoaren arabera. Ondorioz, gatazka hau aurkeztu zuen 2010eko apirilaren 8an, hau da, EIABAREN 13.2 artikuluan aurreikusitako epearen barruan.

2. Gatazka aurkezteko idatziaren zuzenbidezko oinarriak (aurrerago azalduko ditugun arrazoiak direla tarteko, une honetan azaltzea komeni diren oinarriak), honakoak dira, laburbilduta:

- Idatzi horretan, hasteko, (4. ZO) Sozietateen gaineko Zergaren eta BEZAREN burututako eragiketen kuantifikazioa aipatzen du. Eta gero, EZAAREN iritziz bidezkoak diren artikulua transkribatu ostean –Ekonomia Itunaren 14.Bi, 15, 16.A.3 eta 19. artikulua, Sozietateen gaineko Zergari dagokionez, eta

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
12/2010	R1/2013	2013/01/25	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. SZ. Eragiketen bolumena. Gatazkaren onartezintasuna. Arbitraje Batzordearen eskumena

Ekonomia Itunaren 27.Bi, 28.Bat.A.3, 29.Bat eta Sei artikulua, BEZari dagokionez– honako ondorioak atera ditu:

- o Bai Sozietateen gaineko Zergan (Itunaren 14.Bi art.) eta bai BEZari dagokionez (Itunaren 27.Bi art.), eragiketen bolumena modu berean zehaztu behar da, hau da, “subjektu pasiboak, bere jardueran egindako ondasun-emateak eta zerbitzuak direla-eta, ekitaldi batean lortutako kontraprestazioen guztirako zenbatekoa, Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta baliokidetasun-errekargua kenduta, halakorik badago”.
- o Beraz, Itunaren ondorioetarako, eragiketen bolumenak bat eta bera izan behar du zerga batean zein bestean.
- o -Ondasun emateak” honela definitzen ditu BEZari buruzko 37/1992 Legeak, abenduaren 28koak, 8. artikuluan: “ondasun gorpuzdunak eskuratzeko ahalmena eskualdatzea”. Eskualdaketa hori gauza emanda burutu daiteke, edo Kode Zibilaren 1.462 artikulua atalean adierazitakoari jarraituz; izan ere, horren arabera “salmenta eskritura publikoaren bidez egiten denean, baliokideak izango dira eskritura egitea eta kontratuaren objektu den gauza ematea, baldin eta eskritura horrek aurkakoa erakutsi edo ondorioztatzen ez badu argi eta garbi”.
- o Hala eta guztiz ere, Itunak eragiketa bolumenaren barruan sartzen ditu ondasun emateetan lortutako kontraprestazio guztiak; beraz, aurrerakinak ematen direnean, saltzaileak jada lortutako kontraprestazioaren zati diren neurrian, eragiketa bolumenaren zati dira, bai eta aurrerakin horiek emateko unean ondasuna bera eman ez bada ere.

- Gatazka aurkezteko idatzian, ondoren (5. ZO), aipatzen duenez, Sozietateen gaineko Zergaren legeriak –bai foru legeriak eta bai lurralde erkidekoak– kontabilitateko emaitza hartzen du oinarritzat zergaren oinarri ezargaria zehazteko; baina BEZaren kasuan ez dago kontabilitatearekiko erlazio hori.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
12/2010	R1/2013	2013/01/25	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. SZ. Eragiketen bolumena. Gatazkaren onartezintasuna. Arbitraje Batzordearen eskumena

- Idatzian, segidan, (6. ZO), entitateak 2005eko eta 2006ko ekitaldietan aitortutako negozio-zifrak aipatzen ditu (1 aurrekariko taulan adierazitakoak). Ildo horretan dioenez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2009ko azaroaren 20ko informearen arabera, bi zifren artean ikus daitekeen aldearen arrazoia da, dirudienez, “sozietateak zerga bakoitzari dagokion araudira jo duela kasuan kasuko zifra zehazteko, eta hori zuzenbidez egokia da EZAAREN iritziz, baina gero alde hori eragiketen bolumenera eraman da Itunaren ondorioetarako, eta hori ez da zuzena”.

Informe horretan egindako adierazpen bat aipatzen du EZAak; alegia, eskrituran 2006an formalizatu ziren 56 etxebizitzak 2005eko kontabilitatean sartu zirela, higiezinak sustatzeko enpresen kontabilitate plan sektorialean ezarritako irizpideari jarraituz. Irizpide horren arabera, salmentak kontabilitatean sar daitezke higiezina bezeroei emateko moduan dagoenean, higiezina funtsean bukatua dagoenean, alegia; hau da, aurreikuspenen arabera obra bukatzeko geratzen diren kostuak aipagarriak ez direnean kostu osoarekin alderatuta; halakorik ulertzen da aurreikusitako eraikuntza kostuen % 80a jada eraikuntzan sartua dagoenean.

EZAak baieztatzen duenez, “Sozietateen gaineko Zergan eragiketen bolumena zehazteko era hori, Itunean xedatutakotik erabat urrun dago”; izan ere, “Itunean zehaztutako eragiketa bolumena kalkulatzaren ondorioetarako, ez du zerikusirik Sozietateen gaineko Zergaren legeriak eta kontabilitateak oraindik gertatu ez den sarrera bat enpresaren emaitzan sartzeko aukera emateak; izan ere, ondasun ematerik izan ez denez, eta emate horretatik etorritako kontraprestaziorik izan ez denez, sarrera hori ez da eragiketen bolumenean sar daitekeen kopuru bat”. Horrela bada, 2005ean oraindik eskualdatu gabe zeuden 56 etxebizitzaren salmentatik etorritako kopurua ezin da sartu urte horretako eragiketen bolumenean, benetan jasotako aurrerakinei dagokien zatia izan ezik. Gainerakoa 2006ko urteari dagokion bolumenean sartu behar da.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
12/2010	R1/2013	2013/01/25	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. SZ. Eragiketen bolumena. Gatazkaren onartezintasuna. Arbitraje Batzordearen eskumena

- “Eragiketen bolumena” Itunaren 15.Bi artikuluan (Sozietateen gaineko Zergari dagokionez) eta Itunaren 27.Bat.Hirugarrena artikuluan (BEZari dagokionez) aurreikusitako kopurua (6 milioi euro, gatazkan aipagai diren ekitaldietan) baino gehiago bada, kasuan kasuko likidazioen emaitza Administrazio eskudunen artean banatuko da, Itunak hurrenez hurren 18. Lehenengoa eta 29. Bat artikuluetan ezarritakoaren arabera zehaztutako “eragiketa bolumenaren proportzioan”. EZAren iritziz, halaber (7. ZO), proportzio hori Gipuzkoako Foru Aldundiak, kasu honetan, behar ez den moduan zehaztu zuen zerga batean zein bestean; izan ere, hurrengo ekitaldian gauzatuko ziren ondasun emateen aurrerakinak sartu zituen Sozietateen gaineko Zergaren ondorioetarako; hau da, zerga horren oinarri ezargarrian sartu behar ez ziren aurrerakinak. EZAren esanetan, “Itunaren arabera, bai Sozietateen gaineko Zergan eta bai BEZari dagokionez, BEZaren legerian ondasun emateei eta zerbitzu prestazioei ematen zaien definizioari jarraituz zehaztu behar da eragiketen bolumena. Baina, Administrazio bakoitzean ordaindu beharreko zerga-zifra zehazteko, zerga bakoitzaren araudian ezarritakoari jarraitu behar zaio, Itunean jasotako berariazko lotura-puntuak aintzat hartuta”.

Gatazka aurkezteko idatzian, bukatzeko, honako ebazpena eman dezan eskatzen dio Arbitraje Batzordeari: “Gipuzkoako Foru Aldundiak zuzendu egin behar duela entitateak 2005 eta 2006ko ekitaldietan burututako eragiketen kalkulua, eta bai Sozietateen gaineko Zergan eta bai BEZan Administrazio bakoitzari dagokion zerga-proportzioa, betiere Itunaren 14.Bi, 27.Bi, 18. Lehenengoa eta 29.Bigarrena artikuluetan xedatutakoari jarraituz”. 29.Bigarrena artikulua aipamen hori oker dago, 29.Bat artikulua ari dela ulertu behar da.

3. Arbitraje Batzordeak gatazka tramitzeko onartzea erabaki zuen 2011ko ekainaren 24ko bilkuran. Hala, aurkezpen hori Gipuzkoako Foru Aldundiari jakinarazi

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
12/2010	R1/2013	2013/01/25	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. SZ. Eragiketen bolumena. Gatazkaren onartezintasuna. Arbitraje Batzordearen eskumena

zitionean, honek alegazioen idatzi bat egin zuen 2011ko azaroaren 25ean, hain zuzen ere Arbitraje Batzordean egun horretan bertan erregistratu zena.

Gipuzkoako Foru Aldundiak idatzi horretan adierazten duenez, EZAAk, entitatearen eragiketa bolumena dela-eta, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantzetako Departamentuko Ikuskaritzak azaroaren 20an egindako informean jasotako zehaztapenaren ondorioz aurkeztu zuen gatazka. Baina, inhibizio errekerimendua jaso zuenean, aipatutako Ikuskaritzak informe osagarri bat egin zuen, 2010eko ekainaren 2an egindakoa argitzearren. Hauxe zioen txosten osagarri horrek:

- Hasierako informean “eragiketen bolumena “ez da inon ere “negozio-zifrarekin” identifikatu (kontabilitateko emaitzatik aterako zifrarekin, alegia).
- Hasierako informean honakoa adierazten denean “Egiaztapena bultzatu duten eragiketak aztertuta justifikatutzat jo dugu BEZari dagokionez eta Sozietateen gaineko Zergari dagokionez eragiketa horiek era desberdinean zenbatu izana”, honakoa esan nahi da: zerga baten zein bestearen oinarri ezargarriak kalkulaterakoan, eragiketak modu desberdinean kuantifikatu direla, eta hori arrazoitutzat jotzen dugula, baina eragiketa horiek Ekonomia Itunean adierazitako eragiketa bolumenarekin identifikatu gabe, inondik ere.
- 2005eko eta 2006ko ekitaldiei buruz aintzat hartu den eragiketen bolumena, lortutako kontraprestazioen guztizko kopurua izan da, betiere subjektu pasiboak bere jardueran burututako ondasun emateen eta zerbitzu prestazioetan lortutako BEZa eta ekitaldi horietako batean izandako baliokidetasun-errekargua kenduta [Ekonomia Itunaren 14.Bi eta 27.Bi artikulua].
- Eragiketa bolumenaren kuantifikazioa bat eta bakarra izan da Sozietateen gaineko Zergan eta Balio Erantsiaren gaineko Zergan, eta hori jasota geratu zen Ikuskaritza Zuzendariordeak 2009ko irailaren 7an luzatutako eginbidean.
- Eragiketen bolumena zenbatzerakoan aintzat hartu ditugu bezeroek emandako aurrerakinak, nahiz eta aurrerakin horiek Sozietateen gaineko Zergaren oinarri ezargarrian sartu ez diren.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
12/2010	R1/2013	2013/01/25	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. SZ. Eragiketen bolumena. Gatazkaren onartezintasuna. Arbitraje Batzordearen eskumena

- Eragiketen bolumena zenbatzerakoan aintzat hartu ditugu, halaber, berresteko erreserba, seinale edo erres kontzeptupean emandako kopuruak, hain zuzen ere zergapekoak aurrerakinak bezalaxe tratatu dituenak, BEZaren oinarri ezargarrian sartuta.
- Hori guztia aintzat hartuta, zergapekoak 2004ko eta 2005eko ekitaldietan burututako eragiketen bolumena 6 milioi eurotik beherakoa izan zen; eta 2006ko ekitaldian gainditu egin zuen 6 milioi euroko bolumen hori.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, alegazioen idatzian, EZAAk gatazka aurkezteko idatzian planteatutako "eragiketen bolumena" kontzeptuaren definizioa laburtu du segidan. Eta horretan adierazten duenez, definizio hori Foru Ogasuneko Ikuskaritzak 2010eko ekainaren 2an egindako informe osagarriarekin alderatuta "antzman daiteke, Ekonomia Itunaren ondorioetarako, funtsean bat datorrela "eragiketen bolumena" kontzeptuaren zehaztapenarekin". Eta gaineratzen duenez, "hala eta guztiz ere, bada EZAAk isilik pasa duen alderdi bat, hain zuzen ere Administrazio honen iritziz Arbitraje Batzordeak argitzea komeni litzatekeena, etorkizunean gerta litezkeen gatazkak saihestearren; hau da, aztertutako kasu honetan Gipuzkoako Foru Aldundiko Zergen Ikuskaritzak kontuan hartu dituen "berresteko erreserba, seinale eta erres gisa" emandako kopuruak "eragiketen bolumena" kontzeptuan sartu behar diren ala ez, Ekonomia Itunaren ondorioetarako".

Bestetik, EZAAk dioenez (gatazka aurkezteko idatziaren 7. FO), Gipuzkoako Foru Aldundiak oker kalkulatu du Administrazio bakoitzari dagokion tributazio portzentajea. Horren inguruan GFAk dio gai berria dela hori, inhibizio errekerimenduan aipatu gabeko gaia; beraz, auzi horren inguruko errekerimendurik ez egiteak, bere ustez gatazka ez onartzea eskatzen duela gai honi dagokionez. Hala eta guztiz ere, GFaren esanetan, kontuan hartuta 2004ko eta 2005eko ekitaldietan eragiketen bolumena 6 milioi euro baino gutxiago izan zela, eta entitatearen helbide fiskala Gipuzkoan zegoela, Sozietateen gaineko Zergaren eta BEZaren ordainarazpena, 2005ean eta 2006an, soil-soilik Gipuzkoako Foru Aldundiari zegokion, Ekonomia

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
12/2010	R1/2013	2013/01/25	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. SZ. Eragiketen bolumena. Gatazkaren onartezintasuna. Arbitraje Batzordearen eskumena

Itunaren 15. eta 27. artikuluetan xedatutakoaren arabera. 2006ko ekitaldiko negoziozifrak, izatekotan ere, 2007ko ekitaldian izango zukeen eragina; izan ere, urte horretan eragiketen bolumenak 6 milioi euroko kopurua gainditu egin zuenez, aipatutako zergak ekitaldi horretan banatu behar baitziren bi administrazioen artean. Baina 2007ko ekitaldia gatazka honetatik kanpo dago.

Alegazio horiei jarraituz, Gipuzkoako Foru Aldundiak honakoa eskatzen dio Arbitraje Batzordeari:

- Gatazka ez onartzeko zerga-ordainketaren portzentajearen kalkulari dagokionez.
- Erabaki dezala "Administrazio honek zuzen kalkulatu duela, 2005eko eta 2006ko ekitaldietako Sozietateen gaineko Zergari eta BEZari dagokionez, entitateak burututako eragiketen bolumena, eta bolumen horretatik ondorioztatzen den tributazio proportzioa".

4. Espedientea agerian jarri zitzaizanean, idatzi bana aurkeztu zuten gatazkan zerikusia duten bi Administrazioek eta entitateak.

EZA Ak 2012ko maiatzaren 18an egindako idatzia egun horretan bertan aurkeztu zen Postetxean, eta hilaren 21ean erregistratu Arbitraje Batzordean. Idatzi horretan, gatazka aurkeztu aurretik gertatutako aurrekariak azaldu eta horiei Gipuzkoako Foru Ogasunaren Ikuskaritzak 2010eko ekainaren 2an egindako informe gehigarriaren edukia erantsi ostean, EZA Ak bere jarrera laburtu zuen. Eta hori Gipuzkoako Foru Aldundiarekin bat dator, hasteko, "eragiketen bolumena" kontzeptuari dagokionez. Bide batez, bere irizpena erakutsi zuen Aldundiak azaldutako zalantzari dagokionez; alegia, honen ustez "berresteko erreserba, seinale edo erres" gisa emandako kopuruak aipatutako kontzeptuan sartu behar baitira.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
12/2010	R1/2013	2013/01/25	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. SZ. Eragiketen bolumena. Gatazkaren onartezintasuna. Arbitraje Batzordearen eskumena

“Eragiketen bolumen proportzioari” dagokionez, EZAAk defendatzen duen irizpidea ageri da eta, honen arabera “zerga bakoitzaren konputua, BEZaren edota Sozietateen gaineko Zergaren ondasun emateei eta zerbitzu prestazioei buruzko arauen arabera egin behar da”. Aipagai dugun kasu honetan, EZAAk dioenez, 1 ENTITATEAREN eragiketen bolumenak, GFAREN irizpideen arabera kalkulatuta, 2004ko eta 2005eko ekitaldietan ez zuen gainditu 6 milioi euroko kopurua; beraz, aipatutako ekitaldi horietan, BEZaren eta Sozietateen gaineko Zergaren tributazioa entitatearen helbide fiskalari dagokion Administrazioari esleitu behar zaio oso-osorik, hau da, Gipuzkoako Foru Aldundiari.

Azkenik, EZAAk adierazten duenez, EIABAREN 8. artikuluan ezarritakoaren arabera, Arbitraje Batzordearen araubideari dagokionez Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeari jarraituko zaio, araudi honen ondorio izan daitezkeen berezitasunei kalterik egin gabe. Hori horrela, aipatutako legearen 87. artikulua ekarri du gogora, honakoa dioena:

“1. Prozedura amaitzen dute ebazpenak, atzera egiteak, eskaeraren oinarri den eskubideari uko egiteak –ordenamendu juridikoak ukazio hori debekatzen ez badu– eta iraungitzat jotzeak.

2. Prozedura amaitu egingo da, era berean, gerora sortutako arrazoiak direla-eta prozedura ezin bada inola aurrera eraman. Emango den ebazpenak, beti ere, arrazoitua izan behar du”.

Kasu honetan, EZAAk baieztatzen duenez, "Gipuzkoako Foru Aldundiak, batetik, inplizituki onartu egin du eragiketen bolumena kalkulatzeko erabili behar diren irizpideei buruz EZAAk egindako interpretazioa; eta bestetik, aipatutako bolumena zehazteko kalkuluak berriro eginda ondorioztatu du, zergapekoaren tributazioan ez dela inolako proportziorik erabaki behar, sei milioi euroko kopurua gainditu ez

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
12/2010	R1/2013	2013/01/25	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. SZ. Eragiketen bolumena. Gatazkaren onartezintasuna. Arbitraje Batzordearen eskumena

duenez, zerga soil-soilik helbide fiskala duen administrazioan (Gipuzkoako Foru Aldundia) ordaindu behar duelako; beraz, Gipuzkoako Foru Aldundiak onartu egin dituen EZAk proposatutako irizpideak, ulertu behar dugu gatazka bultzatu zuen objektua desagertu egin dela, gatazka hori aurkeztu zen baldintzetan”. Ondorioz, Arbitraje Batzordeari eskatzen dio “prozedura artxibatzea erabaki dezala, EZAA honen nahiak bete direlako”.

5. Gipuzkoako Foru Aldundiak, izapide honetan aurkeztutako idatzian –2012ko maiatzaren 9an egin eta hilaren 14an erregistratutako idatzian–, aurreko alegazioen idatzian azaldutako argudioak berretsi besterik ez du egin, Arbitraje Batzorde honek alegazio haien araberrako ebazpena eman dezan eskatuz.

Entitatearen ordezkariak bide telematikoa erabili zuen Arbitraje Batzordeko idazkariari 2012ko abenduaren 13ko data daraman komunikazio bat helarazteko. Horretan adierazten duenez, 2006ko ekitaldian Sozietateen gaineko Zergaren ordainketa Gipuzkoako Foru Aldundiari egin behar zitzaion oso-osorik, eta ez dator bat, bere ustez Gipuzkoako Foru Ogasuneko Ikuskaritzak 2009ko azaroaren 20ko informean azaltzen duen kontrako irizpidearekin. Ildo horretan, zerga eta ekitaldi horri buruz Gipuzkoako Foru Ogasuneko Ikuskaritzak 2009ko abenduaren 11n egindako egiaztapen eta adostasun aktaren kopia erantsi dio idatziari, eta horretan onartu egiten da aipatutako zerga-ordainketa Gipuzkoako Foru Aldundiari bakarrik egin behar zaiola.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1. EZAk 2012ko maiatzaren 18ko alegazioen idatzian Arbitraje Batzordeari egin dion eskaera, “prozedura artxibatzea erabaki dezala EZAren eskaera bete delako”, hauetan atzera egitearen parekoa da. Prozedura amaitzeko modu horri buruz hauxe dio Prozedura Legearen 90.1 artikulua: “interesdunek atzera egin dezakete beren eskaeran,...”. Gatazkaren prozedura honetan, EZAk hartu duen jarrera da

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
12/2010	R1/2013	2013/01/25	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. SZ. Eragiketen bolumena. Gatazkaren onartezintasuna. Arbitraje Batzordearen eskumena

interesatuarena. Prozedura Legeak honakoa xedatzen du 91.2 artikuluan: "Administrazioak bete-betean onartuko du atzera egitea edo uko egitea, eta amaitutzat emango du prozedura; hala ere, ez du prozedura amaitutzat emango, beste interesdunik aurkeztu bada eta, atzera egitea jakinarazi eta hamar egunetan, prozedura aurrera eramateko eskatzen badute interesdun horiek". Arau hori betez, bada, Arbitraje Batzordeak amaitutzat eman behar du prozedura hau.

2. Hala eta guztiz ere, prozedurak amaitutzat aitortzeko, prozedura horrek behar den moduan abiarazia izan behar du. Kasu honetan, hasiera hori zalantzazkoa da Arbitraje Batzorde honen irizpenera jarritako gaia kontuan hartuta, gai horren izaera abstraktua baita funtsean. Hain zuzen ere, Arbitraje Batzordeari ez zaio irizpenik eskatu Administrazio batek finkatu duen eta beste Administrazio batek zalantzan jarri duen eragiketen bolumenari buruz; izan ere, hala balitz, bolumen horren kopurutik, Itunaren arabera, ondorioak etorriko lirateke aplikatu beharreko araudiari, zergaren ordainarazpenari edo zergaren ikuskaritzari buruz, eskumen gatazka sortuz. Ez da ahaztu behar, prozedura honetan ez dela inoiz ere aipatu Gipuzkoako Foru Aldundiaren iritziz entitateak burututako eragiketen bolumena; Aldundiak 2011ko azaroaren 25ean egindako alegazioen idatzian bakarrik aipatzen da kuantifikazio bat eta bakarra egin zuela Sozietateen gaineko Zergari eta BEZari dagokienez – espedientean ageri ez den eginbide baten arabera–, eta 2004ko eta 2005eko ekitaldietan, bolumen hori 6 milioi eurotik beherakoa izan zela; eta EZAAk ez du ezer adierazi baieztapen horren aurka.

EZAAk gatazka aurkezteko idatzian azaldutako arrazoiak, 1 ENTITATEAri buruzko datuek bultzatuak badira ere, interpretazio kontuak dira oso-osorik: Ekonomia Itunak onartutako "eragiketen bolumena" eta "eragiketa bolumenaren proportzioa" kontzeptuen interpretazioaren ingurukoak, hain zuzen; eta hortaz, izaera orokor eta abstraktukoak dira. Horregatik, EZAAk hasiera batean Arbitraje Batzordeari eskatu diona ez da izan, aldeztu aurretik Gipuzkoako Foru Aldundiak kuantifikatutako eragiketen bolumena modu jakin batean zuzentzea; baizik eta eragiketa horiek

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
12/2010	R1/2013	2013/01/25	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. SZ. Eragiketen bolumena. Gatazkaren onartezintasuna. Arbitraje Batzordearen eskumena

Ekonomia Ituneko arauen arabera kuantifikatzea, betiere arau horiei EZAAk ematen dien interpretazioaren arabera.

Gatazka hau bultzatu duena ez da izan, halaber, Administrazio batek (kasu honetan Gipuzkoako Foru Aldundiak), berak aintzat hartutako eragiketen bolumena oinarritzat hartuta, beste Administrazio baten (kasu honetan EZAA) ahalmenak bere esku hartu izana, EZAAren iritziz honen eskumenak urratuz. Hori da eskumen gatazken berariazko kasuan, Arbitraje Batzordeak jakin beharrekoa. Horregatik, EZAAk Gipuzkoako Foru Aldundiari zuzendutako “inhibizio errekerimenduaren” bitartez exijitzen diona ez da, honek EZAAren iritziz GFaren esku dagoen ahalmen batean atzera egitea; baizik eta entitateak burututako eragiketen bolumena, EZAAren ustez zuzena den interpretazioari jarraituz zehaztea. Beraz, Gipuzkoako Foru Ogasuneko Ikuskaritzak arrazoi du 2010eko ekainaren 2ko informean honakoa adierazten duenean: “Zerga Administrazioen artean sortutako gatazkak ebazteko jarraitu behar den prozedurari ekiteko bide egokia, itxuraz, ez da aldez aurreko baldintza gisa inhibizio errekerimendua egitea; izan ere, Ikuskaritza honen iritziz, itundutako tributuen lotura-puntuak aplikatzeari dagokionez, ez dago ez eskumen gatazkarik eta ez interpretazio gatazkarik”.

Hona EZAAren iritziz hasiera batean existitzen zen desadostasuna abstraktua dela erakusten duen froga: EZAAren esanetan, gatazkaren objektua desagertu egin da Ekonomia Itunean jasotako “eragiketen bolumena” kontzeptuari buruz bat datozela agerian jarri denean, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak zehaztutako kopuruak ezbairik gabe onartu direnean. Eta, gorago esan dugun bezala, kopuru horiek ez dute auzirik eragin prozedura honetan.

Bada, Arbitraje Batzordearen eginkizunak erregulatzen dituzten arauetatik ondorioztatzen denez, honen zereginetan ez da sartzen Ekonomia Ituna interpretatzerakoan sor daitezkeen eta gatazka zehatzekin zerikusirik ez duten auziak erabakitzea. Hori erakusten du Ekonomia Itunaren 66. artikulua; izan ere,

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
12/2010	R1/2013	2013/01/25	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. SZ. Eragiketen bolumena. Gatazkaren onartezintasuna. Arbitraje Batzordearen eskumena

“gatazkak ebazteaz” edo “gatazken berri izateaz” ari da, eta oro har, “eskumen gatazkak aipatzen ditu”. Ondorio berbera ateratzen da EIABAREN 3, 10, 11 eta 12. artikuluetatik ere, horietan guztietan eskumen gatazkak baitira aipagaia. Horixe da EIABAREN 13. artikuluan aurreikusitako kasua, gatazka aurkeztu ahal izateko alde zuzenetik aurreikusi behar dela esaniz.

Beraz, kasu honetan benetako eskumen gatazkarik ez dagoenez –gerora halakorik sor baliteke ere–, gatazka hau ez zen behar bezala abiarazi eta, beraz, ez da onartu behar.

Horrenbestez, Arbitraje Batzordeak

ERABAKI DU

Gatazka hau onartezintzat jotzea.